



Calcutako Bigarren Mahai-Inguru Nazionala



Nondik norakoak

Azaroaren 9tik 11ra egin zen Calcutako Bigarren Mahai-Inguru Nazionala. Lehen Mahai-Inguru 2022ko azaroan izan zen eta jorratu-tako gaia emakumeen erresilientziarako estrategia feministak izan ziren. Bigarren mahai inguruan, aldiz, ingurumenen jarri da fokua; zehazki Naturaren Eskubideen gainean jardun zen komunitate indigenen ikuspegitik.

Ekitaldia Udayani Social Action Forumek (gure tokiko bazkidea Calcutan) antolatu zuen. Indiako 15 erakundek parte hartu zuten, horien artean aipagarriak dira honakoak: Swayam, erakunde feminista; Navdanya, antolakunde ekofeminista; komunitate tribalekin lan egiten duten GKEak; eta, Kalangarai, Samagra eta Shakti Trust, emakumeekin lankidetzan dihardutenak. Halaber, Calcuta inguruko tokiko bazkide guztiek parte hartu dute, baita Indiako Foroko beste euskal erakundeetako tokiko bazkideek ere.

Lehen eguna

Dr. Xavier Savarimuthuren hitzaldiarekin eman zitzaion hasiera jardunaldiari. Hain zuzen ere, mintzatu zen klima-aldaketak eta komunitate indigenek ingurumenaren zaintzan, biodibertsitatearen babesean eta krisi klimatikoaren aurkako borrokan duten funtsezko rolaz. Jarraitzeko, Dayamani Barla aktibistaren ponentzia inspiratzaileaz gozatu genuen.

Emakume adivasi (tribal) izate hutsagatik aurre egin behar izan dituen oztopoak aipatu zituen. Era berean, hizketagai izan zituen komunitatearen eta naturaren defentsan egin dituen ekintzak. Hori guztia gutxi balitz, tokiko mugimenduen eta komunitate-mobilizazioaren bidez, komunitateentzat eta ingurumenarentzat kaltegarriak diren enpresa-proiektuen aurka borrokatu duela ere kontatu zuen.

Topaketa honetan jarduera parte-hartzaileak eta interaktiboak ere egin ziren. Horren erakusle da lehenengo egunean egin zen Ecoart jarduera. Bertan, 50 parte-hartzaile inguru taldeka banatu ziren eta elkarlanean, naturari buruzko mural artistikoak sortu zituzten. Gerora, talde bakoitzak bere esperientzia kontatu eta gogoetatu partekatu zituen.

Bigarren eguna

Jardunaldiaren bigarren egunean, protagonista izan ziren Vasava Gita (Rajpipla Social Service Society), Basanti Saren (Udayani Social Action Forum) eta Aparna Sahoo (Navdanya). Emakume horiek klima aldaketaren ondorioz, haien komunitateak jasan dituen aldaketen gainean mintzatu ziren; eta, gainera, arazo horren aurrean babesteko eman beharreko urratsak aipatu zituzten.



Sayantoni Duttak (Jaladarsha Collective), Amrita Chatterjeek (SAFE South Asia Forum of Environment) eta Ashok Kumarrek (Samagra) "Pandemia osteko aroan ingurumenaren esparruan GKEen esku-hartzeak berrudikatzea" deituriko panelean hartu zuten parte. Emakume horiek kontatu zuten komunitate indigenekin batera ingurumengaitan egiten duten lana. Azpimarratu zuten Adivasi komunitateak pairatzen duela krisi klimatikoaren eragina handiena. Haien ikuspegitik, gainera, kulturarekin eta naturarekin konektatzeko eta "lan egiteko" modua naturarekin bat egitea da.

Talde dinamika bat ere egin zen ekitaldiaren bigarren egunean. 6 pertsonako taldeetan bilduta hainbat gai buruz hausnartu eta eztabaidatu zen 2 orduz. Jorratu ziren gaiak honakoak izan ziren: ekofeminismoa; uraren kontserbazioa eta kudeaketa; tokiko gobernuek naturaren eskubideetan duten rola; murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Gaiak aztertu ondoren, konponbideetan jarri zen fokua.

Aurrez aipatutako guztiaz gainera, ekitaldian parte hartu zuten pertsonen antzerki bat ikusi zuten. Antzerkiaren gaia hauxe zen: plastikoen erabileraren ondorio kaltegarriak. Udayani Social Action Forum erakundearekin lan egiten duten emakume liderrek prestatu zuten. Garrantzitsua da aditzera ematea, emakume horiek antzerkia erabiltzen dutela haien landa-komunitateetan ingurumena babesteko beharri buruz kontzientziatzeko.

Egunarekin amaitzeko, naturan ibilaldia egin genuen. Parte-hartzaile guztiok hitzaldietan aipatutako landare, zuhaitz, fruta-ARBOLA, sendabelar eta belarrak identifikatu genituen.

Metodologia parte hartzaileak eta ikasketak

Jardunaldiaren azken eguna guztiz parte-hartzailea izan zen. Bertaratutako guztiak animatu ziren hitzalditik ateratako ikasketak eta sortutako gogoetak plazaratzera. Ekitaldian erakunde bakoitzean ingurumena errespetatzen duten esperientzia pertsonalak eta praktikak kontatu zituzten.

Arestian aipatutako guztiagatik, interesgarria da aipatzea mahai-inguruak naturaren eta komunitate indigenen eskubideei buruz hausnartzeko helburua izateaz gainera, erakundeen arteko trukerako aukera ere suertatu zuela; modu honetan ahalbideratu zen metodologia parte hartzaileei, ikuspegi anitzei eta ikasketza desberdinei tokia ematea.

Natura ere bagara

Calcuta Ondoan-ek Natura ere bagara Gizarte Eraldaketako Hezkuntza proiektua du eskuartean 2023-2024 urterako. Proiektu horrek helburu du gizakiaren eta naturaren arteko harremanari buruz hausnartzea. Aurrekoa ikuspegi kritiko batetik abiatuta egingo da, eta, aldi berean, alternatibak eta mundu ikuskera berritzaileak aurkeztuko dira tokikotasuna zainduz.

Bide hori gauzatzeko erabiliko den metodologia herri hezkuntza du oinarri eta teknika parte hartzaileak eta ikuspegi feministak uztartzen ditu. Izan ere, Calcuta Ondoan-ek sinesten du metodologia mota horiek erraztu egiten dutela pertsonen modu eroso batean munduari buruz duten ezagutza partekatzea eta alternatibak plazaratzea.

Hori horrela, Natura ere Bagara hezkuntza formaleko eta ez formaleko agenteekin batera burutuko da. Hezkuntza formalari dago-kionez, Donostiako La Salle ikastetxean DBH 4ko ikasleekin jardura teoriko praktikoak egingo dira (tailerrak, baso bainuak, sorkuntza lanak... ect) ikasturtean zehar. Formakuntza horiek hezkuntza ekosizala dute izpide eta funtsean, gazteek naturagatiko kezka zabaltea eta lotura berreskuratzea dute helburu.

Halaber, Euskal Herriko Unibertsitatean Bizitze Onaren helburuak nazioarte mailan lantzen dituen bi formakuntza saio eskainiko dira: bat teorikoa eta bestea praktikoa. Saio horiek gaian adituak diren bi ikertzaileen eskutik eskainiko dira. Hain zuzen ere, Huelvako Unibertsitateetik gonbidatuak izan dira Ana Patricia Cubillo Guevara eta Antonio Luis Hidalgo Capitán.

Hezkuntza ez formalarri errepertuz gero, hiri nahiz herri mailan ekiten duten eragile sozialekin egingo dugu elkarlana eta honako jarduerak burutuko ditugu: Donostildeko Ekoizpen Kolektiboen Sarearen bidez auzolanak; Cristina Enea Fundazioarekin baratza gourmet tailerra; aisialdi taldeekin artea hondatzen, etb.

Era berean, maiatzak 25 eta 26 Beizamako Aterpetxean elkartruke bat antolatu dugu. Helburua da bi egunetan zehar jardura parte hartzaileak egitea ekofeminismoa eta naturaren eskubideak ulertu eta, batez ere, sentitzeko.

Ekintza parte hartzeile horiek izango dira: baso bainuak, Aleka Euskal Herriko Hazi Ekologikoen elkartearen bisita, artea eta natura uztartzen dituen tailerra, etc. Gai guzti horien gaineko mahai inguru bat ere egingo da eta gonbidatuen artean Vandana Shiva, Lolita Chavez eta Yayo Herrero egongo dira.

Calcuta Ondoan-ek egungo errealitatera egokitutako formakuntza ezinbestekoa dela pentsatzen du. Horregatik, erakundea osatzen duten batzordeari, boluntario taldeari eta Cristina Enea Fundazioa osatzen duten langileei bi formakuntza saio eskainiko zaizkie. Lehenengoa, natura eskubideen gainean eta, bigarrena, egungo krisi ekosoziala ardatz hartuta dauden alternatibak izango dira hizketagai: ekofeminismoa, jatorrizko herrien jakintza, lurraren zaintza. Ikasitakoak praktikan jartze aldera baso bainuen saio bat ere egingo da Basona elkartearen bitartez Uliako basoan.

Bi jomuga garrantzitsu ditu Gizarte Hezkuntza proiektuak: alde batetik, ingurumen-iraunkortasunetik natura-eskubideetara igarotzeko gogoeta egitea eta sakontzea. Komenigarria da azaltzea Naturaren eskubideak naturak dituen eskubide espezifikoak direla, hala nola, existitzeko eskubidea, bizi-zikloen funtzionamenduari eusteko eskubidea eta kalteak jasaten dituen lehengoratuia izateko eskubidea. Modu horretan, naturaren elementu eta ekosistema partikularrak eskubideen subjektu gisa aitortzen dira. Gaur egun, kontinente guztietako 35 herrialdek baino gehiagok aitortu dituzte nolabait Naturaren Eskubideak beren arau-sistemetan.

Beste alde batetik, feminismitik ekofeminismora egin nahi da trantsizioa. Ekofeminismoa Ekologiaren eta Feminismoaren arteko elkar-keta eta balizko sinergiak aztertzen dituen pentsamendu, korrante ideologiko edo gizarte-mugimendu bat da. Mahai gaineratzen da naturaren eta beste pertsona batzuen beharra dugula bizirauteko. Aurreko pentsamenduek egungo sistemak ahaztutako bi baieztapen mahigaineratzen dituzte: elkaren mendeko eta naturaren mendeko izakiak gairela. Hori horrela da, alde batetik, bizirauteko behar dugun guztia naturatik ateratzen dugulako: janaria, ura, mineralak, eraikuntzako materialak, arropa egiteko materialak, energia fosila, elektrikoa, etab. Beste alde batetik, jaiotzen garenetik pertsona batzuk besteen menpe gaude.



AGENDA

- **LEGORRETAKO ELKARTASUN AZOKA**
2023-12-17
Legorretako Frontoian
- **BIZITZE ONAREN HELBURUAK**
NAZIOARTE MAILAN
Otsailak 1: 18:00 (EHU Donostia)
Otsailak 2: 10:00 (EHU, Donostia)

Sare sozial berriak: Instagram eta LinkedIn

Calcuta Ondoan-ek erabaki du kontua irekitzea bi sare sozialetan: LinkedIn eta Instagram. Helburua da GKE-ak egiten dituen ekimen eta jarduerak aditzera ematea.

Sare Sozial horien bidez Calcuta Ondoan-ek ikusgarriago bihurtu nahi du Gipuzkoan. Zehatzago esanda, erraminta horien bidez honako emaitzak lortu nahi dira:

- Gipuzkoako biztanleriak Calcuta Ondoan-ek bidelaguntzen dituen proiektuen berri ematea: Nazioarteko garapenean, Laguntza Humanitarioan eta Gizarte Hezkuntzan.
- Informazio pildorak bidaltzea genero, giza eskubide, naturaren eskubide eta justizia sozialaren alorrean.

Jarraitu gure kontuetan:

- LinkedIn: Calcuta Ondoan
- Instagram: @Calcutaondoan



Calcuta Ondoan ONGD onura publikoko elkarte da, eta Gipuzkoan jaio zen 1999an. Laguntza humanitarioko eta garapenerako proiektuak babesten ditugu, Indian pertsonak eta taldeak modu integralean sustatzeko, betiere pertsona eta herri gisa duten nortasuna eta erlijioa errespetatuz eta giza eskubideak eta genero-berdintasuna sustatuz.

Gure inguruan kontzientzia kritikoa eta konprometituia sustatzen dugu Hegoaldeko herrialdeetan bazterkeria-, bidegabekeria- eta pobretze-egoeretan gertatzen diren kausei, ondorioei eta erantzunkidetasunari buruz. Horrela, ikuspegi positibo batetik, elkartasuna, kultura-aniztasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua sustatzen ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroan inskribatuta dago, AS/G8501/2001 zenbakiarekin (IFZ: G-20696175). Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta Zero Pobrezia Plataformako kide da, eta 2009an onura publikokotzat jo zuten (36/2009 Dekretua).

